




ILEROKO ALDIZKARI EDERGAÏDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

—: || X Urtea || 1928'ko Dagoniã || 116 Zenbakia || :—

GRAZIA

*Quia lex per Moysen data est, gratia et veritas
per Jesum Christum facta est (Joan. 1-17).*

Legea Moisek emana da, ba, Grazia ta egia be-
fiz Jesukristok egiña.



AZPI sakramentuak graziaren beste ain-
beste itufi dirala ikusi genuen azkene-
koan. Baño oraindik ez dizuet adierazi
grazia zer dan edo zenbat eratakoa izan
diteken. Ikusi dezagun, ba, ori; baita
graziaz beraz daukagun premi aundia
ere.

Grazia zer da?

Jaungoikoaren doai utsean ematen zai-
guna ta gizonak bere indafez iritxi ezin
lezakena da grazia.

Jaungoikoaren doai dira ezaguera argia, indafak, osasuna ta lu-
feko ondasun edozein; baño doai auek guziak izatezkoak edo gure
izaeraren ariora emanak dira.

Grazia ordea, Jaungoikoaren doai gure izaeraz gañezkoa da; ez
gure izaerari zor zaiona.

Umezurtz eta beartsua zan Ester. Asuerok bere beartasunetik
jasorik, Asuero efege beraren jauregira bizitzera eraman zuen. Ara-

ko ametsik izan etzezakena, Asueroren jauregirako aukeratua arkitu zan. Etxe ari zegokion soñekoz jantzierazi zuen. Edefa omen zan berez; baño edefago geratu zan, an emandako jantzi eta apaingafiz. Orduan Asuero'ren biotza bete zuen eta bere emaztetako artu zuen.

Ona, graziak gurekin egiten duenaren irudia.

Gerez umezurtz gera. Goraldi zoragarria da umezurtz beartsua-
rentzat aberats aundi edo efegeak bere jauregirako aukeratzea. Go-
raldi ezin esan ala aundiagoa da, ba, guretzat graziazkoa, Ester'ena
baño. Jaungoikoak bere begirik beregana itzultzea merezi ez duten
gurasoen ume gera. Jaungoikoak ordea bere grazia ematen digu; au
da, edo bataioa edo ortarako gertuko (prestatuko) gaituen deia. Eta
dei onen bidez bere etxerako bidean jartzen gaitu, edo bataioaren bi-
dez bere etxeko egiñik.

Bere lenengo grazia oni esker onez erantzuten badiogu, asten
da Jauna bertatik gure anima jazten, txukuntzen eta apaintzen. Esker
gaiztoko batzuek ez bagaizkio biurtzen, Jauna gu bere grazi beñi, ge-
ro ta edefagoaz aberastutzeaz ezta beñiere aspertzen.

Jaungoikoaren ontasun utsaz ematen zaigun doaia da, geroztik.

Jaungoikoaren doaia deitu dezakegu gañerantzean, Jaungoiko be-
rak bakafik eman dezakigukena dalako.

Ama-Birjiñak eta santuak iritxi dezakigukete Jaungoikoaren gra-
zia, baño berak eman ez. Au ezta Ama Birjiñaren edo santuen zitu
edo frutua, baizik Jesukristo Gure Jaunarena ta bere Betiko Aitarena.
Jaungoiko Aitak bere Seme gizon egiñaren irabaziz edo merezimen-
duz ematen digun doai jainkozkoa da geroztik grazia.

Grazia utsean emana dela esaten da. Gizonak alakorik berez
irabazi ezin lezakela, Jesukristoren bitartez eta Jaungoikoaren onta-
sunez emana dalako.

Aristian esan degunaz igafi diteke grazia bi eratakoa dala, done-
tzalea ta laguntzalea.

Grazia donetzalea zer da?

Grazia donetzalea da Jainkozko izanera, gizonak Jaungoikoaren
seme ta zeruko jabegai itzultzen gaituena (N. K. I.).

Donetzalea deitzen zaio, gauza done edo santu itzultzen gaitue-
lako. Onak kentzen du pekatua gugandik eta animari zuzentasuna
ta zeruko edertasuna ezartzen dio. Ofela anima Jaungoikoaren be-
gietan maitagafi ta bere aur maitatu biurtzen da. Argatik grazia ori
duena zerurako egokitasunaz jantzirik dago.

Grazia donetzalea, grazia laguntzaleak azitzen edo aunditzen
eta geitzen dute. Norberaren egite onak indar beña ematen diote eta
Sakramentuen afera onak batez ere.



ZERU-LUËN EREGIÑA

Pekatu txikiak argaltzen dute eta galkor itzultzen dute Grazia donetzale ori. Pekatu aundiak befiz bereala ondutzen du. Ari leku ematea naikoa da Grazia donetzalea galdurik gelditzeko, ta Jaungoikoaren ume ta zeruko jabegai giñenak, doai guzi oiek galtzeko.

Grazia laguntzaleak zer dira?

Grazia laguntzaleak dira onak izaten asteko, onean irauteko ta azken on bat egiteko Jaungoikoak ematen dituen laguntzak (N. K. I.)

Grazia laguntzaleak guziori ematen dizkigu Jaungoikoak. Ezagurarako argitaldi berezi bat izaten da grazia laguntzale ori. Naimen edo borondaterako onerako eragiñaldi gozo bat. Biotzerako gauza onen zaletasun edo gauza gaiztoen nazka ta gofotoaldi bat.

Ongi artzen ba-da grazia ori, egintza bakoitzerako ematen zaigu grazia befiia ta bakoitzak dituen bear edo premietarako dagokion erakoa ematen zaio.

Grazia donetzalerik eztuenari ere ematen dio Jaungoikoak.

Grazia donetzalean dagoanari ugariago. Baño grazia donetzalea bere obenaz (kulpaz) galdu duenari ere ukatu gabe. Eta grazia laguntzale ofi ongi erantzun ezkeror, Jaungoikoak grazia donetzalea ere eman egiten dio pekatarari.

Grazia laguntzaleok oso igeskorak dira, edo berdin dana, eragiten digute ta guk ongi artu edo ez, ba-dijoaz gure esku artetik. Ongi artu ba-degu, grazi laguntzale befiak datozkigu ta len baño ere indartsuagoak, eta ortik etofi bear du gure iraupena.

Graziaren beaia

Mats adafak ezin du matsik eman mats ondoari daokala besterik (Joan. XV-3). Onela gizonak ere ezin du betiko bizitzarako on danik egin grazia donetzalea gabe.

Ni gabe ezin dezute ezer egin. Mats adafak ez bai dezake eraman ziturik (fruturik) mats ondoan ez badago, onelaxe, ezta zuek ere nigan ez ba-dirauzute. (Joan. XV-4). Zerurako irabazirik, den txikienik ere, ezin egin degu, ba, Jesu'ekin ez ba-gaude.

Zerua merezi dezaken lanbiderik ezin degu egin Jaungoikoaren grazirik gabe.

Gauza on efazen batzuek egin genezazke graziarik gabe; baño Jaungoikoaren agindu guziak inñolaz ere ez genezazke gorde grazia ori gabe.

Gogoraldi onik, lanbide zerurakorik, edo Jaungoikoaren begiak bete dezazkenik egitekoz bear degun grazia, ainbat goratzen gaituenan bila zagun eta aspertu gabe bila zagun.

Pedro Mari Amerikanoa



EDRO MARI ur otzez eferik gelditu zan, Joxe Antonek afatsalde artan esan zizkionaz. Eta efitafak apezgaiari aiako agufaldi gozoa egiten ikustean, bere aitzekia atera-ta alde egin nai zuen.

Baño ostalari, zofo aundi ta gefiko jarioak, esan zion: D. Pedro Mari, gaur ederki erantzun diozu.

—Bai alajañena! zioten burua beste aldera itzuliz, zapelpetik alkafi begituz eta ifi-mufiz, bafesitar nřutienak.

—Ařano ofek kopeta gaiztoa dik! esan zuen Amerikanoak—Baño gaur izualdi edefa eman diozu—jo zion kořeoak.—Orain ere, joan den bezelajoateko ğzer ote zuen ařek?—erantsi zuen ostalariak.—Lengo Lakuntzafak esan zuena, «zakufen maingia» ez naski besterik—esan zuen azkenean kořeoak.

Pedro Mari poztu zan, besteren isatsarekin euliak kendu zezazkela ikustean eta muse bat atera, zuen kontu aiek alde batera utzirik.

Baño aste batek ufengoa urbil du, ta igandea eltortzean efiko edozein zokotan beste jolasik etzan entzuten, baizik egun artan Pedro Marik zer ikustekoa jafi bear ote zuen. Geienak uste zuten etzela urbilduko ostatura; bere ibilaldia egitera joan eta ez itzuli egingo zuela.

Baño Bezpera ondorean ikusi zuten, kořeoa lagun zuela ba-zijoala ostatura. Apostu eguna izan balitz aña gizon bildu zan ostatura.

Azken-azkena Joxe Anton sartu zan. Berantetsirik bezala zeuden efitafak, beren lekutik jeikiz tokia egiten zioten pafez-pafez, Pedro Mariren ondoraño urbiltzeko. Baño onek, ikusi zuen bezin laxter bertso au bota zion:

Joxe Antonek uste du
ez naizela nor ni,
bere jakinduriaz
izango du premi;
esazu lenbizi,
bai al da Jaungoikorik
nai dut nik ikasi.

—Berealaxe erantzungo dizut, esan zion aurpegi gozoz apezgaiak. Baño Pedro Marik, gaztea estutzeagatik, erantzun zion: Bertsoan ezpada, ez-tu balio.

Ori entzun zuenean Joxe Antonek, bere eskuñeko eskuz txapela kendu-ta onela erantzun zion:

Jaungoikoa ba-dela
ikasía duzu,
txiki-txikitandikan
ezpa-duzu aztu;
begiak itxuturik
baldin ba-dituzu,
oiek argirazteko
ni gertu naukazu.

Efitar guziak txaloka ta aufaka artu zituzten Joxe Antonen itzok.

Pedro Mari berak eskua luzatuz eta eskuñekotik elduz bere aurrean jafi erazi zuen,—Bejondeizula! esanez.

—Jaungoikoa ba-dala esatea efaz da, esan zuen Amerikanoak. Baldin ba-da ta ain aundia ba-da, nola eztugu, ba, ikusten.?

—A, zer ateraldia!—erantzun zion Joxe Antonek.—Ez al dakizu Jaungoikoa gorputz gabe dala, ta gorputz gabeak gorputzez ez dirala ikusten?

—Gorputz gabea? Antzarak pefatzik kontu oiekin.

—Aizu, erantzun zion apezgaiak, ikusten al dezu zure anima? Edo ez ote duzu astoak baño geiago? Ofela balitz, ez nuke geiago zurekin itzik egin nai. Erantzun zazu, ba.

—Anima ba-dugula ba-dakit; baño ori ere eztakigu zer dan.

—Ai! eztakizu ori ere zer dan? Ori ere Jaungoikoaren antzera egiña dalako, gorputz gabeko izakia da. Ta gizonaren anima baño geiago eztiteke Jaungoikoa ikusi, baño anima bezin efaz sumatu bai ba-dala.


—Baño ikusi?


—Ikusi? Gorputzeko begiz ez, baño bai aixa aski ezaguerazkoaz, nai duenak.

—Baño ikusten da edo ezta ikusten?

—Ezaguera duenak eta biotza garbi duenak, nai izanez gero ikusten du; baño ikusi nai eztuenak, eguzkitan begiak ixten dituenak eguzkia baño geiago eztu ikusten; edo biotza zikiña daukanari ere, begietan gandua daukanari bezala gertatu zaikioke.

Legateko Artzaia





Aita Dima Txinara bidean.

Aita Dima'r Fernando, Bizkaiko seme bikaña Txinara dihoakigu.

Aita au ezaguna da euskal irakurleak artean Aita Soloeta'ren izenaz. 1913'an argitaratu eman zuan bere «Conjugación Sintética del verbo vasco».

Emezortzi urte ba-zituan Argentinan misiolari zegoala. Orain Buenos Aires'en Nueva Pompeya'ko Pafokian Apaiz-aita (Párroco), gure etxe artako Nagusi ta «Nueva Pompeya» ilabeteroko aldizkariaren Zuzendari zan. Inoiz lanak ikaratzen etzuen gizona, igaz etofi zitzaigun emengo bere Anai oi besarka bana ematera ta bere ama xartuari azken ikustaldia egiteko asmotan.

Baño onera zanean emen ikasi zituan Txina'ra joan ziran gure lenengo bi euskaldunen befiak; eta oña. Gure Aita Dimak eztié, ba, eskatu, Amerika'ko bere Nagusitza ta guziak utzirik, Txina'ra Misiolari joateko eskubidea.

Eta Nagusiak ezaguturik gure Dima'r Aita bizkofaren biotz aundiaren befiá baita eman ere. Eta gure gizona bakar-bakarrik, beste ondoren joango diranai begira egon gabe, ortxe dijoa. Jofailaren 15'ean atera zan bere eritik. Ofilaren 1'an Genova'tik. Egun auetantxe sartzen da Txina'n. Beste igazko zazpi lagunak sinbat ikusi zuten lapufekin eta... baño misiolari aundi au eztu ezerk bildurtzen. Jaunak bere itzal gozoa emango diola gaude, Bera-gatik ain neke gogoretara bere burua daraman Aita Dima'ri.


Amerikan'n negarez daude etxeko ta kanpokoak ain Aita onak iges egin dielako. Aren biotz aundiaz, aren buru argiaz eta aren xalotasunaz eztaude azturik.

Antiphona ad Confractionem Panis


(ex Codice Silensi)

Donosti'ar Jose And. A'k. ereskidetua


Gus-tá - - - te et vi-dé-te quam sua-vis est Dó-mi-nus



Al-le-lú-ia, al-le-lú-ia, al-le - - - - - lú-ia. Be-ne-




di-cam Dó-minum in om-ni té-m-po-re semper laus é-ius in o-re me-o.




Al-le-lu-ia Al-le-lu-ia Al-le - - - - lu - - ia. Ré-di-met




Dó-mi-nus á-ni-mas servó-rum su-ó - rum et non de-re-línquet omnes




qui spérant in e - um - ñ Al-le-lú-ia Al-le-lú-ia Al-le - - - - - lú-



ia Gló-ri-a et ho-nor Pá-tri et Fí-li-o et Spi-ri-tu-



- i Sanc-to in saé-cu-la sae-cu-ló-rum A-men Al-le-lú-ia



Al-le-lú-ia Al-le - - - - - lú-ia.



“Karmel’go Loreak”

Bera, Abarenak - C. M. F.

Zortzi eresi eder Karmel’go Ama Birjiñari abesteko eta ereserki polit bat Jesus Auren Teresatxo deunari. Amalau laurlekoz saltzen dira.

Ara emen, befiz ere, Bera Aba ereslari bikaiñ onen lore sorta xamur bat. Egoki, egoki, iru izkuntzetako itzak, bederatzi eresi dakarzki sorta onetan. Euskeraz, erderaz eta katalanez’ko itzak dauzka bakoitzak. Oietatik bost iru edo lau abotsetako egiñak daude; beste lau abots bakafarentzat, baña denak ere abots bakafean abesteko eran egiñak daude.

Aspaldi ontan ez degu gauza befi asko ikusi oi gai ontaz eta poztan gera benetan Bera Aba onen kemenaz. Egiten digun lan edefarekin!...

Jafaitu, jafaitu ontan zure lan eder oni. Jaunak bereganatu zigun ezkeru Iruafizaga’ tar Luis Aba zure anai maite ta ereslari agurgafi, ospetsu ura, ea zerofek ark utzi digun utsune aundi au zerbait bada ere betetzen diguzun! Jaunak lagundu dizazula!...

Baia, aizu, Bera Aba maite ori!... euskera biur xamar ori zerbait, zerbait eřaztuko bazenduke... zenbat geiago maiteko nuken zure lan edera!... Eresi auek eřiarentzako diran ezkeru, euskera eřaztxo bat zure eresi bikaiñ auei jartzen badiezu, askoz obeak izango diralakoan nago. Argi eta garbi. Ez danik ez esateagatik, bada.

Eta, ez laga zure lanari. Auffera, kementsu!...

ZENDOYA

Ëzti-mordo gañean

(Blotzeko adiskide Anitua'tar Kepa'ri
bere meza beriko egunean.)

Orain amaika urte bezela Osintxu baten
goroldiozko ertz eze-ezean
txorten tentedun lore samur bat sortu zizaizun
ezti-gai guriz bete-betea.

Bere gañean
eginalean

agitz pozkiro ezti-gai biltzen jardun dezula
ikusi zaitut aldi luzean
Gazteiz aldeko, anbat aranzdun, erlauntz artara
eramateko negu otzean.

Lore samur au laztan gozoaz estutu zendun
sortu zan une bere-beretik
txorten bafengo muin sendo ta pipil gañeko
gaiak artzeko lore artatik.

Nonbait igeri
Jainkoak zuri

Osintxu uruko loretxo afen bear ziñala
gañezkatzeko zorion-eztiz
ta lortu dezu urats bat ere oker ein gabe
loretxo afen txorten albotik.

Zorion aldi leguna
gaur zuk lortua dezuna;
gotzonak berak jaitutzen daude
abesti samur bigunaz.

Gazteiz uriko erlebatz artan iñoiz etzera
erle-nagi ta zabaña izandu
eta aberaskak ezti gozoaz ondo betetzen
trebetasunez jafaitu dezu

eta gaur pozik — igeri zabiltz
plisti-plastaka ondo-gabeko eztizko putzu
gozatsu ortan benetan zorun
gureganaño elizen dirala pozezko tanto
zipristintsuak guk ar ditzagun.

Bizar gabeko galburu edo arantz gabeko
gastain morkotsik ez dan bezala
ondo dakigu arantz gabeko erlauntzik ere
ludi onetan inon ez dala

eta Gazteiz'ko — eultza bafengo
zimiko latzak aldi luzean jasan dituzu
zure bizikera agitz apalaz
zimiko ondoren ezti-mordoa milikatuaz
bizi izateko Ark nai bezala.

Zorion aldi leguna
zuk gaur lortua dezuna,



gotzonak berak jaitutzen daude
abesti samur bigunaz.

Onbidearen zidoetatik aldi luzean
ardura aundiaz jañaitu dezu
eta ordañez Jainkoa bera ogi irudian
eskuetara gaur jetxi zaizu.

Zure mingaña — izketa apañaz
agitz urduri gartsu afenga Beraxeganontz
s amur zuzentzen nabaitu dizu
eta zerutar ezti-mordoaz gozo izateko
goitik beraño igurtzi zaitu.

Gaztearoan, gaur arteraño, zintzo ta leial
izandu zeran artzai-mutila:
artzaingorako gai zeralako gaurtik Artzaia
zedoñei uzten dizu makiña,

beaz otsoa — zure sorora
bildotx iredle sartuko balitz, dantzatu_ondo
gaur jaso dezun artzai-makiña,
zure mendiko artalde txukun artara inoiz
sartu ez dedin ludi-naspila.

Zorion aldi leguna
zuk gaur lortua dezuna;
gotzonak berak jaitutzen daude
abesti samur bigunaz.

Gaur abaraskan bildua dezun ezti-tartean
arantz zar, txofoix bat nabai dezu
ta au nabaitzean zure biotza ainbat atsege
ezti-gañean moteltzen zaizu.

| Osin urean — zegon lorean
ezti-gai biltzen lagundu zizun aita nai eta.....
ludian inon ezin arkitu
eta arantzari atarik gabe inola ezin
mutur txofoixa ziara moztu.


Gotzonaz goian zure egun aundi zoragaria
jaitzen dagola gogoratzean
befiro poza jabetzen orde aita gabeko
biotz apal ta oso on ofetan.

Zure malkoak — ezti tantoak
izan bitez ba gaurko egunez, berok gozoro
begietatik ixuritzean
zure ama, zu, senide, aide ta adiskideok
goza gaitzen ezti-tartean.

Zorioneko eguna
gaur pozez jaitzen dezuna;
Jauna'k iraunkor ein dezaizula
eskar ugari legunaz.

Zubigar

Garagariña, 10-1928.





Bilaba'tar Aita Tarsizio'ren eskutitz edo karta

Txintxow 1928'ko Martxua'ren 23'an

Aita Buenabentura ta Jose Luis agurgariak

ALTSASU'N

Aita maite-maiteak: Atzo afatsaldean artu nituan ^{zuen} eskutitz edo karta atsegiñak, ta, erantzutea egoki dan ezker, lenbailen egin nai det. Aita Gregorik eskutitz bat idatzi (eskribitu) ta zuen biak biali zizkidan, baita oiekin nik poz aundia artu ere, zuek ongi asmatu dezakezuen bezela. Txina'ko izkuntza ikasketa egun batzuz utzirik, Aita Walter ta Aita Franz'en misio-lekuetara juan giñen lau misiolari beñi (Aita Simon ongi etzegoalako, gaitz aundirik ez izan afen, etxean geldiazi zuten). Lenbiziko iru egunetan Aita Fuljentzio ta ni Aita Franz'en misio-lekutan izan giñen, ta Aita Julian ta Rafael Aita Walter'enean ta gero aiek gure lekura etofi ta gu aienera juan giñen.

Misio-saio on ta erakustez betea izan zan guretako; Aita Nagusiak au egi-tekko agindu zigun, ola misiolari beñiak misiolari zar eta trebeakin ikasi dezagun. Emen bialtzen dizkizuet nere lenbiziko ateraldiko beñiak.

Kristauak ikusten

Egun auetako eginkizun bat izan zan aitatutako Aita oien kontura dauden kristau-taldeak ikustea. Danak begirune beraz ta maitetasun berakin artzen ginduzten, baita poz aundiaz ere, omen edo onra aunditzat bai daukate, *Txen-fu* (animaren aita, apaiza) aiek ikustera juatea; izen au kristau ez diranak berak ere begirune aundiz esaten dute. *Txen-fu le lio ma?* esaten ziguten gu artzera-koan (Ondo etofi al zera?): ta belaxe guri mandotik jeixten laguntzera aufera-tzen ziran ta bere etxea eskeintzen ziguten: aberatsenak izan ta ere, loi ta zu-rezkoak ziran, oin bakafekoa ta gela bakafekoa. Guk sañera edo eskaratza deituko giñukena guzia zan: sukalde, jan-leku, etzaleku, ardangela eta. Etixerik aundienak etzituan 5 metro luzean ta 4 zabalean baño geiago izango. Onenean bazteretan goruntz metro bat zeukaten bi lubeta edo teraplen ikusten ziran, geienetan bat bakafik, ta aien gañean ez beñiegi ezta garbiegi zeuden estera edo ziri aundiak, oberena kanpotafentzat gordetzen dute, ta gu ere ara igoazi ginduzten, ez katadera edo siñetan, baizik kokoriko an jartzeko.

Lenbizi beren *te* jatorra eskeintzen ziguten, azukrerik gabe alegia, ta irakii ten, bero egin aŕen, ta gu izerditan eldu giñala ikusi aŕen.

Emengo sukaldeak gure baseŕietako jendeak zelaŕetan egiten dituzten suen antzeko lufezko labetxo batzuk dira; ke-bide edo tximenirik eztaukatelako, guri geldigabe malkoak ixuriazterañoko ke aundia askotan egiten zan. Au ta gañera zikinkeria ikusteak gogorazten ziguten, zergatik ainbeste betaŕreko edo antiojo beltz-dun nekazari ta eskaleak ikusten diran askotan. Emengoen artean begiramen ezagungari edo señaŕlea aŕotzai etxekoai baño lenago jaten ematea dalako, beti bakarik jaten genduan eta etxeko jauna serbitzari genduala: onen eginkizun nagusia zan artzen genduan te-zufupa aña aldiz gure edan-ontzi edo basoetara *tea* botatzea, emengo Txina'tafak beintzat oso gutxi jaten dute-ta. Ziritxoakin jaten oituak geundelako, etzuten zergatik gutaz aŕitu ta par egin guk jaten ez jakiteagatik.


Bataiatuak


Gauza aŕigaria da zein eŕaz zeruratzen diran Txina'tar asko. Au adierazteko gertaera batzun beŕi emango dizuet. Bere misiotako bat ikustera gure Aita Walter zijoala, bidetik kanpoan ta uŕuti gauza bakanen bateri geldi-geldi begira zeuden jende talde bat arkitu zuen; auŕera juateko asmoan zan, biotzak ala eman ta ordea leku artara juan zan. Baita misiolaria aŕitu ere jendearen erdian putzu batetik aur atera beŕi bat nola azkeneko asnasak artzen ari zan ajola gabe begira ikusi zituanean. Bataiatu zuan eta minuto batzuk gerogo bere anima egakazi-juan zerura.

Ez misiolariaz, ez bere Erlijioaz ezer entzun gabeko kristau etzan gizon batek misioko atean jo zuen ostatua eskatuaz; aita aitatuak nekeaz ta aule-riaz ain indar galdua ikusi zuanean bere moŕoiari agindu zien ongi zaitu ta bera-ri Erlijioa erakusteko. Misiolaria ibilaldi bat egitera juan zan ta iru egun baŕu etxeratzean, gaixo artaz galdetzean dotriña-erakusleak erantzun zion: Azkene-ko bi egunetan bat batean min egiten zitzaion eta bart aŕatsean iñ da, berak ala eskatu-ta, guk bataiatu-ondoan.

Alabeaŕez jakin zuen, kristau etzan andre batek bere aurtxo, mutikoa jaio etzalako, eŕe egin nai zuela (au oso gutxitan gertatzen da emen). Misiolariak aurtxo oso aula zegoala ikusirik, beaŕbada gaizki artu zualako amak, iritxi zuen *dolar* bat eman-ta utzi zezaiola Misiolariari, inude kristau bati emateko; bataiatu du, ta, egun gutxi baño len, lur au utziko du. Oien antzeko gertaerak ezin esan alakoak dira.

(Jaŕaitzeko)





LORE AROXKOA

Osto txuri-txuriak zituen lore eder-lirain bat baso baten erdi-erdian azi zen. Iñargiak sasi tartetik sartuta muñ egiten zionean izar disditzari bat zirudin. Pozik egon zitekean, ezta ala?

Ez bada: lore edefa, izartxo bat zirudiena, ilun zegon, bere buru usaigozoduna luferuntz makurtuta zeukan. Bein txori batek esan zion: Zer dezu ain ilun?

—¡Oi...! ¿zergatik nagon ain ilun? Baso beltz ontan bakar-bakarik nagolako ta ez usai egitera, ez ikustera inortxo ere ez datorrelako.

—¿Beste alde batera eramatea nai dezu? Nik badakit jende asko ta asko igarotzen dan tokia. An guziak zu ikusi ta zure edertasunaz txoraturik geldituko dire. ¿An pozik egongo ziñake?—¡Oi! bai, oso pozik. Toki eder artara eramango baninduzu txori eder oñek..—Bai pozik ere, ikusiko dezu.

Jetxi zen txori ongilea zegon adafetik eta txifist-txafast, atzaparka, lore inguruko lufa bereala kendu zuen. Sustraiak oso agertu zirenean landarea mo-koan artu ta ega egin zuen efi ondoko bide bateraño. Bein antxe egin zuen beriz ere atzaparka txulo bat eta lore sustraiak bertan sarturik lufez poliki-poliki estali zituen. ¡Zein polita ematen zuen bide ertzean izartxo zirudin loreak!...

Baño, ¡ai...! etzan izan zoriontsu. Orain toki edefean zegon baño... jendeak begiratu beafean, bere edertasunaz zoratu beafean, lokatza besterik etzeukan berarentzat. ¡Lore zoritxafezkoa! ¡Ai, nolako eriotza beltza izan zuen izar txiki bat zirudin lore gaixoak!

Iru egun geroago, basotik efira ekari zuen adiskidetroa ikustera gure txoria joan zanean ¿zer ikusi zuen? Osto zimel-zizur batzuek lokatza nazkagari tar-tean. Andik igarotako gizon batek oñakin zapaldu zuen lore gaixoa. ¿Gure erie-tako gazte, Iruña, Donosti edo Bilbozaleei ez die ezer esaten ipui ilun onek?

Intzar Lorentzo A.




Ikasi..! Ikasi..!




I.—«Aizak i, zer gertatu zaik, Joxe Migel
[gaxoa?
Oraindik ofen gazte ta añas buru-soildua!
Orixe *gazta* galanta daukak lepo gañean!
Ezetz izan leunagorik Euskaleñi guzian...»



II.—«Xo! zer oiur dira oiek! Aizak, Joxe Miel,
[aizak!...
Ilea sortuazteko *botika* omen zeukak.
Oraintxe dek era ona, eros zak bereala,
Ea befiz sortzen zaiken galdutako ilea.»



III.—«Nik olakorik erosi? Ixilik ago, Manu;
Afotz oñek nai duena guri sosak garbitu.
Beizak, beizak, berak ere burua soil dik noski.
Ots, ar zak aga luze bat, urbil adi poliki,
Bera oartzen eztala ken zaiok zapel ori,
Berak zenbat ile duen bear diagu ikusi.»



IV.—«Esan ta egin. Zapela Manuk kendu'dionean,
A! zer *gazta* borobila agertzen dan azpian!
Orduan gezurti afen istilu-deadañak!
Ango jende guziaren ifi-algara-pañak!
Lepo-buru-aurpegiak lotsaz gofi-gofirik,
Arin joan zan gizona etofi zan bidetik.»

— B E R I A K —

Mejiko'ko gauzak.—Beste eriotza edera.

Orain lau ilabete, Jesukristo'ren etsaien eskuetan il da Elias Aita, agustin-dara. Ez dira ixiltzekoak bere eriotzaz etori diran beriak. Atsalde batean Calles'en gudari edo soldaduak bere erian sartu bezin laster, asi ziran elizan zegoan guzia ondatzen. Au ikusi zuanean, Elias Aitak iges egin zuen, baño etzan, uste ainbeste, gordeta egon. Soldaduak lotu ta erira zuten, bere alde atera ziran beste bi lagunakin batean. Bi adiskide zintzo oyek etzuten Elias Aita geyago utzi, beren etxera joateko libre zeudela, soldaduen buruak esan da ere.

Ufengo goizean irurak eritik kanpora atera zituzten. Bi lagunak pozik il ziran, Elias Aitarekin azkenengo konfesioa egin ondorean. Bere ofietan bi adiskideak ilak ikusiafen, etzan ikaratu Elias Aita ta denbora piska bat eskatu zion soldaduen buruari, eriotzarako prestatzeko. Belauniko alditxo bat egon da gero, altxatu zan eta iri-bafez esan zien: «Nai dezutenean». Soldaduak, kapitanak esan bezela, beren iskiño edo armak prestatzen ari ziranean, Elias Aitak esan zien: «Belaunikatu zaitezte ta artu zazute nere bedeinkazioa ta onekin batean nere barkapena».

Alako maitasuna soldaduak ikusi zutenean, belauniko jafi ziran, eta gurutze eginaz, Aitaren bedeinkazioa artu zuten. Kapitana gelditu zan bakarik zutik pafeginaz. Onen biotza biguntzeko, Elias Aitak esan zion: «Zuri ere nere bedeinkazio ta barkapena pozik emango dizut». «Ez daukat, erantzun zion kapitanak, inork bedeinkatu bearik; nere fusilarekin naikoa det». Ta esan orduko, kapitana bere eskuz il zuan.

Beri au laster zabaldu zan ta ikustekoa izan zan katolikoen joan-etofia, Jesukristo'ren iru serbitzari zintzo oyen oin eta eskuai musu ematera.

Epaile (juez) ta apaiza.

Inglatera'ko efi batean bi emakumekin ezkondua zegoan gizon bat epaileari eraman zioten. Onek egin zizkion olakotan egiten diran galderak eta gizon ura katolikoa zala ikusi zuan. Orduan adierazi zion zein itxusia zan bere bizimodua ta zein gogof zigofitzen zuan legeak bizi-modu ori. «Ala ere, esan zion epaileak, ez dizut merezi dezuna emango; libre utziko zaitut, baño itza eman bea didazu, emendik apaiz batengana joango zerala; on aundia egingo dizula badakit».

Itxas-ontzi bateko jai aundia.

Italia'ko itxasontzi bati, «Saturnia» izenekoari, mesede aundienetakoa egin dio Aita Santuak. Mesede au da ontziko elizatzxoan Jauna beti eukitzea. Mesede onengatik ontzian jai aundia egin dute. Goizean meza nagusia ontzian dijoazen guzi-guzien afean eman da ta bertan apaizak ongi-etofia eman dio Jesukristo'ri. Gero prozesioa egin da, jende askok laguntzen zuela ta azkenean egun guzian bere aldarean agirian egon da. Aita Santuari eskerak, zein Adiskide bikaña izango duten emendik afera ontzi ontan dijoazenak.

Egalari (aviador) batzuen sinismena.

«Bremen» izena zuen egazkian (aeroplano) egalari alemandar batzuek egan Amerika'ra joan ziranean, beste gauza asko artean zabaldu zan beren buruak iltzeko asmoak zituztela, itxasora erortzen baziran. Au egiya etzala, ofelako asmorik etzutela, egalari berak esan zuten. Etzitekean ori izan, berak agertu duten sinismena euki ta. Gero jakin danez, gurutze bar eramateaz etziran aztu; onek lagundu zien bide guzian, oni begiratu zioten eta oni «Aita Gureak» esan, batez ere nun zebiltzan etzekiten aldi batean.